

Berriak lotzen - Genero-aurrekontua eta genero-berdintasunarekiko konpromisoa

Kudeaketa Publiko Berria eta generoen arteko aldearen erronka

Gaur egun, EB osoko udalerrri eta eskualdeek antzeko erronkei aurre egiten diete. Jarduera ekonomikoa bermatu eta eskualdeen hazkuntza ekonomikoa sustatu behar dute, aldaketa demografikoari eta biztanleriaren zahartzeari aurre egin behar diote, gizarte-kohesioari eutsi eta langabeziari eta pobreziari aurre egiteko neurriak hartu behar dituzte. Era berean, etorkizun iraunkorra bultzatzen duten politikak sustatu behar dituzte. Gizarte-justizia eta ingurune garbia bultzatzen dituen gizarte batean bizi diren herritarrek ongizatea nahi dute bizitzeko.

Europarrek lehentasun komun batzuk badituzte; alabaina, EBko herrialde kide batzuek identitate tradizionalari eusten diote, eta beste batzuek aurrera egiteko jarrera irekiagoa erakusten dute. Hori horrela da; ez bakarrik politiketan, baita diru publikoa erabiltzeko moduan ere. Egun, kudeaketa publikoa gaur egungo baldintzetara egokitzeko kontzeptu eta prozedura berriak eztabaidatzen ari dira EBko (eta kanpoko) aditu eta profesionalak. Ondo gobernatu ahal izateko zer premia larri eta zer lehentasun bete behar diren aztertzen ari dira aditu eta profesional horiek.

EB komunitate ekonomiko bat da ororen gainera, nahiz eta betidanik askoren nahia eta ahalegina izan den Europa bateratuaren profil politikoa areagotzea. Estatu tradizionaletako agintariek produktuak eta zerbitzuak ematen dituzte. Herrialde modernoetan, berriz, indar handiek behin eta berriz azpimarratzen dute merkatuari lehentasuna eman behar zaiola ahalik eta afera gehienetan. Egun, politikari eta ekonomialari gehienek arabera, zerbitzu sozialak ere merkatuaren produktu bilakatu beharko lirarteke. Merkatuko produktuak erabiltzaileen beharretara egokitu behar dira, eta hornitzaile pribatuek eraginkorragoak eta merkeagoak izan behar dute.

Ekonomialaria naizen aldetik, espero dut genero-aurrekontua ekonomiaren ikuspuntutik begiratzeko dudan joera ulertuko duzuela. Har dezadan nire hiria egungo bilakaeraren adibidetzat. Esperimentazio-garai baten ostean, Kolonia hiriaren kudeaketa tradizionala aldatu egin zen 2008an: udalaren aurrekontu guztia kudeaketa tradizionaletik Kudeaketa Publiko Berrira aldatu zen. Udal-finantzazioaz arduratzen diren administratzaileentzat, gure komunitatearen identitatea aldatu egin da: lehen Erdi Aroko katedral zoragarri bat zena korporazio bat da orain. Korporazio horren jarduera 17 udal-taldetan antolatuta dago. Saiatzen gara gastuak eta etekinak berdina izan daitezen, noski; horregatik, badakigu egin dezakeguna diru-mugek baldintzatzen dutela. Honako eslogan hau ezaguna da, bai hemen, baita beste lekuetan ere: baliabideak gure haur eta bilobentzat gorde behar ditugu.

Kolonia hiriak bizileku zoragarria izaten jarraitzen du, batez ere behar dutena erosteko nahikoa diru dutenentzat. Dena den, Kolonian nahikoa erosahalmen ez duten biztanleria-talde asko daude, eta horiei mantenua eman behar diegu. Lehendabiziko pausoa da diru-laguntza zer produkturi eman behar zaien zehaztea, produktu horiek denek eskura egon daitezkeen. Esan gabe doa emakumeek beren postu berean dauden gizonek baino gutxiago irabazten dutela, ez Kolonian eta Alemanian soilik, baizik eta mundu osoan. Generoaren garrantzia agerian uzten duen lehenengo eremua diru publikoaren kudeaketa da; izan ere, generoa garrantzitsua da arazo publikoen kudeaketa eraginkorrerako.

Genero-desberdintasuna oso errotuta dago ekonomia-merkatuaren planteamendu tradizionalan

Une aproposa da hau ekonomiaren teoriari begirada bizkor bat emateko.

Ekonomialariak oraindik etxez mintzo dira, pertsoez mintzatu beharrean. Agente ekonomikoak ez dira ez gizonak ez emakumeak. *Homo oeconomicus* ospetsua ekonomiaren eta bizitza errearen arteko loturatzat hartzen da. Ekonomia-merkatuaren esparru sozioekonomikoan, agente ekonomikoak du bere etxea lortzearen eta ongizatearen ardura. Esan gabe doa arrazoibide ekonomikoaren oinarritzko uste hori oso urrun dagoela errealitatetik.

Herrialde europar guztietan, emakumeak nahiz gizonak eskubide osoko herritarrak dira; ez legearen aurrean soilik, baita ekonomiaren ikuspuntutik ere; gero eta gehiago, gainera.

Emakumeak eta gizonak ezin ditugu hartu familiari lotutako erabiltzailetzat edo merkatuko produktuen eta zerbitzu publikoen bezerotzat. Aitzitik, bi generoak tokiko agintaritzaren kide autonomoak dira, eta bizitza publikorako oinarritzko baliabideak ematen dituzte. Onartu behar da haien jarduera ezinbestekoa dela, ez familiarentzat soilik, baita komunitatearentzat ere.

Udalaren kudeaketa publikoaren planteamendu ekonomikoak desoreka sor lezake, baldin eta ez bada gai saldu ez diren produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko. Komunitate batean, hiritarra etxea (oro har patriarkala) izan beharrean edozein sexu edo adinetako pertsona baldin bada, zalantzarik gabe, maila ekonomikoak ez du lortuko nahikoa gobernantza. Udal-baliabideei buruz jardutean, ezinbestekoa da udalaren finantzazio-kudeaketak **genero**arekin lotutako aspektuak kontuan hartzea. Hori beharrezkoa da, batez ere, familiari bideratutako zerbitzu sozialen sektorean, baina baita beste sektoretan ere.

Genero-berdintasuna giza eskubide kontua nahiz ekonomia-hazkunde eta -lehia kontua da

Genero-aurrekontuari dagokionez, Europako Kontseiluak teoria ekonomikoaren genero-inpartzialtasuna azpimarratzen du, eta genero-berdintasuna oinarritzko giza eskubidetzat hartzen du. Dena den, jakin behar dugu, generoari dagokionez, EBk aspektu ekonomikoari ematen diola beti garrantzia. Ekar dezagun gogora 1957ko Erromako itunaren 119. artikulua. Europar Batasun sortu berriaren abiapuntua soldata berbera jasotzeko araua izan zen. Soldaten arteko aldeak estatu kideen industrien arteko lehia honda zezakeela ohartarazi zuen Frantziak. EBko kideek erabaki zuten justifikatu gabeko soldata-desberdintasunak deuseztatu egin behar zirela. Hala, eragozpenik gabeko lehiaren aldeko apustua egin zuten; izan ere, eragozpenik gabeko lehiak eragozpenik gabeko ekonomia-hazkundera ekarriko zuen.

Nik esango nuke Europak hasiera-hasieratik utzi zuela agerian honako elementu hauen arteko interdependentzia: genero-berdintasunaren sustapena eta handitzen ari zen ekonomiaren arau eta helburuak. Lehenik eta behin, lan-merkatuan emakumeen posizioa indartzea, ororen gainera, gizarte-justiziaren aldeko eskakizuna da. Bestalde, familia duten emazteen eta amen independentzia bultzatzeak pobreziaren arriskua gutxitzen du, eta, aldi berean, ekonomiari eta estatuari zama soziala arintzen die. Ekonomiaren ikuspuntutik, familia-kideak etxeko diru-sarreraren mende daude. Diru-sarrera hori guztia etxeko gizonak jasotzen zuen lehen (eta, neurri batean, baita gaur ere). Beraz, ekonomiaren ikuspuntutik, emazteen eta amen independentziak, batik bat,

bi premia gutxitzen ditu: diru-laguntza publiko garestien premia eta gizonen laguntza txikia duten etxeetan esku hartzeko premia.

Funtsean, emakumeei ahalmena emateak egitura tradizionalaren ezintasun bat orekatzen du: emakumeen eta haurren ongizatea eta belaunaldien arteko kohesioa bermatzeko ezintasuna, hain zuzen ere. Ikus dezagun, berriro ere, teoria ekonomikoak zer dioen. XVIII. mendean, Adam Smithek, egungo arrazoibide ekonomikoaren aitatzat dugunak, zerbitzu pertsonalak alferrikakoak zirela esan zuen. Izan ere, zerbitzu pertsonalek zenbait baliabide xahutzen dituzte. Baliabide horiek izakinak hobetzeko erabili beharko lirateke, eta izakinek aberastasun materiala ekoizteko balio dute. Jakina, ez zuen familiako emakumeen zerbitzuetan pentsatu; zerbitzu horiek ez ziren ezerezetik sortu. Etxeko lorpenak gizonarenak soilik zirela eta gizona familiaburua zela esaten zen garai hartan. (Gizonezko) zerbitzarien eta profesionalen lan ordaindua ongizatearen eta aisialdiaren gehigarritzat hartzen zuen Adam Smithek.

Ez niri errua egotzi ekonomia egiteko modu industrializatuaren zentzugabekeriari errua egotzen badiot. Adam Smith aitzindaria da lantegi motako fabrikazioaren mugak gainditzen. Haren helburua zen saleros zitezkeen produktuen ekoizpena azkartzea nazioen (hots, nazio europarren) aberastasuna handitzeko. Haren teoriak argien mendeko arrazoibidea erakusten dute; garai hartan, arrazionala ez zen oro ezabatu egiten zen. Emakumeak irrazionalak ziren filosofoen eta zientzialarien begietan; beraz, arrazionala zen emakumeak ekonomiaren ikusmoldean ez sartzea.

Lehenengo ekonomialarien teoriak XVIII. mendeko ikusmoldea zuten oinarritzat. Luze iraun zuen garai bati hasiera eman zioten ekonomialari haiek. Garai hartan, emakumeak ikusezinak ziren, eta esaten zen maila ekonomiko apalagoa zutela.

Emakumeen zereginak eta lorpenak etxean bertan gelditzen ziren, eta teoria ekonomikoan hutsune bat izaten jarraitu zuten. Azken hamarkadetan, baina, ekonomialari feministak hutsune hori betetzen saiatu dira. Arrazoibide ekonomikoaren hutsune hori adierazteko, **zaintza** terminoa erabili dute. Zaintzaren helburua ez da saleros daitezkeen produktuak ekoiztea, baizik eta harremanak, ongizatea eta osasuna bermatzea. Gizakiek gaitasun bat galtzen dute ekoizpen materialaren mende daudenean: bizitza mantentzeko gaitasuna. Zaintza-lanak denbora asko eskatzen du, eta ez dio men egiten azeleratzeko ahaleginei.

Era berean, ekonomiaren ikuspuntutik, etxe barneko ekimenak guztiz inproduktiboak dira. Etxeko lana *lan* terminoarekin bateragarria izan ez arren, kontsumoarekin lotuta dago, eta zailtasun ekonomikoei aurre egiten laguntzen du. Ordaindu gabeko lana egiten dutenak ez dira langiletzat hartzen, baizik eta erabiltzailatzat edo kontsumitzailatzat, eta esaten da haiek mantentzeko kostuak ez duela etekinik sortzen. Horregatik, aurrekontu publiko eta pribatuek ez diete laguntzarik eman nahi izaten zaintza-ekimenei eta belaunaldi zahar eta gazteen ardurari. Ekonomiaren ikuspegia alde batera utzita, ordaindutako eta ordaindu gabeko zaintza-lanek emakumeei ematen zaizkien aurreiritzi berberak ditu oro har, hau da, ez dute arreta berezirik behar.

Egun genero-aspektuei ematen zaien garrantzia garapen ekonomikoaren ikuspuntutik balioesteko, aintzat hartu behar dugu etxean, oinarritzko ekonomia-unitatean, gizonak eta emakumeak egiten dituzten funtzioak bereizi egin behar direla. Beharrezkoa da etorkizunera bideratutako politika irekiek generoa markatuta daukaten etxeko ekimenak (“produktibo” eta inproduktibo gisa sailkatuak) aldatzea. Analisisian, gizonez eta

emakumez gain, beren lana ere kontuan hartu behar da. Ez da zilegi generoa markatuta daukaten etxeko funtzioak soilik gizabanakoaren jokabideari egozte.

Adituak “ugalketa-krisia” deitzen dutenaz mintzo direnean, zera datorkie burura: haurren pobrezia, denbora gabezia, gizarte-kohesioa ahultzea, familien eta gizabanakoen arteko gizarte-tartea handitzea, ingurumena narriatzea, bizitza-kalitatea txartzea. Ikertzaile gutxi batzuek –gehienak emakumeak– azpimarratzen dute zer ondorio txarrak izan ditzakeen munduan gero eta nabariagoa den kapitalismo globalak edo balio moralik ez izateak. Ikertzaile horiek hau gogorarazten digute: ekonomia modernoak eremu batean kokatzen ditu giza ekimen inproduktiboak, eta eremu horrek bere baitan hartzen ditu etekinik sortzen ez duten ekimenak, kontsumoa, aisialdia eta gizabanakoaren aukerak. Une honetan, familia eztabaidagai bilakatzen da.

Esan genezake hazkunde industrialak alde batera utzi duela bizitza mantentzearen alderdi inproduktiboa. Alderdi hori generoan oinarritutako estrategien eraginaren pean dago familian. Gizonen autoestimua produktibitatean eta indarrean dago oinarrituta. Batez ere emakumeek arduratu behar dute garapen ekonomikoaren herentzia ez-ekonomikoaz. Denbora gutxiago izateak eta estresa handitzeak emakumeek ongizatea emateko eta zaintzeko duten gaitasuna oztopatzen du. Egun, merkatuak gero eta ugariagoak dira, eta familiak –emakumeak eta beren haurrak, adinduak eta laguntza intentsiboa behar duten beste taldeak– aurre egin behar die hazkunde ekonomikoaren ondorioei.

Aurre egin ahal izango ote die Kudeaketa Publiko Berriak bilakaera horren arriskuei? Printzipio ekonomikoetan oinarritutako erabakiek erraz larriagotu dezakete emakumeek jasan behar duten zama. Agian horregatik, batez ere emakumeek aurre egiten diete, gero eta ugariagoak diren arazoentzako konponbideak bilatzeko orduan, genero-zeharkakotasunaren, genero-ikuspegia duten aurrekontuen eta gizarte zibilaren aukera eta arriskuei.

Egonkortasun ekonomikoa eta gizarte-kohesioa lortzeko udal-estrategiak

Genero-zeharkakotasunaren eta genero-aurrekontuaren eginkizuna

Generoen arteko harremanek eginkizun garrantzitsua betetzen dute egungo gizarte-arazoetan; era berean, garrantzitsua da genero-zeharkakotasuna eta genero-ikuspegia aintzat hartzen dituzten aurrekontuak ebaluatzea. Zenbait erakundek bi estrategia horiek zer premiazkoak diren azpimarratu dute: Europar Batasunak, Munduko Bankuak, Commonwealtharen idazkaritzak eta nazioartean kooperazio ekonomikoan lanean diharduten beste hainbat agentziak. Beren helburu komuna da hazkunde ekonomikoak eta handitzen ari diren merkatuek ematen dituzten aukerez profitatuz generoen arteko aldea desagerraraztea.

Espero da generoarekin lotutako politikak abian den mundu mailako industrializazioaren inpaktua gutxitzen eta komertzioa eta finantza-merkatuak liberalizatzen lagunduko duela. Mundu osoan, eskala txikiko produkzioa eta familiaren zaintza egonkortasuna galtzeko arriskuan daude. Gizon baino emakume gehiago behartuta daude baliabide berriak erabiltzera beren bizitza segurtatzeko. Gizon baino emakume gehiago pobreak dira jada.

- Genero-zeharkakotasuna

Egun, genero-zeharkakotasuna da estrategia gomendatuena emakumeak eta haien familiak generoen arteko aldea handitzetik babesteko. Horrek aukera berrietan parte hartu ahal izatea erraztuko die bi generoei, eta emakumeek egungo bilakaerez profitatzeko dituzten oztopoak gainditzeko balioko du. Dena den, Alemanian nahiz beste herrialde europar batzuetan, kontserbatzaile batzuek zalantzan jartzen dute genero-zeharkakotasuna, eta ez dute uste etorkizun hobearen lortzeko estrategia egokia denik. Jendeak uste du genero-desberdintasuna desagerrarazteak gizonen eta emakumeen identitatea zalantzan jartzea edo beren jokabidea aldatzea esan nahi duela. Ez dute ulertzen zer alde dagoen gizon edo emakume izatearen artean. Zaila da jende horri ikusaraztea genero-zeharkakotasunak emakumei eta gizonei beren gaitasunak guttitz garatzen uzten ez dieten egiturak aldatzea dakarrela.

Pertsona orekatuek (gizon zein emakume) onartzen dute emakumeek lan-merkatuan berdintasun handiagoa lortu behar dutela eta horrek gizarte-justizia ekarriko duela. Era berean, talde horiek kexu dira familia-egitura ahultzen ari delako, eta egungo balio moralak galtzeari eta emakumeek independentzia nahi izateari egozten diote hori. Dirudenez, jende hori konbentziturik dago emakume bakoitzak dilema ekonomikoari aurre egin diezaiokela hala nahi izanez gero. Gaizkiulertu hori dela eta, emakume batek eskura dituen baliabideekin –indarrarekin, denborarekin, diruarekin– aurrera ateratzea lortzen ez duenean, hutsegite pertsonal bat egin izana leporatzen zaio maiz.

Gizonen eta emakumeen arteko aldeak argituko dituzten ikusmolde berriak behar ditugu. Jendeak (eta ekonomiaren eta soziologiaren ikusmolde zabalduek) uste du desberdintasun horiek naturaren opari edo ezkontzaren ondorio direla; ikusmolde berri horiek, ordea, ezin dira uste horietan oinarritu. Beraz, genero-zeharkakotasuna ulertzeko modua ez da eremu publikora eta lan-merkatura mugatu behar. Etekinik sortzen ez duten giza ekimenak giza baliabideen dimentsiotzat hartzeak soilik lagunduko die teoria zabalduek genero-itsutasunak dakartzan arazoei aurre egiten. Ezinbesteko baldintza da garai bateko etxe patriarkalean oinarritutako planteamendu andozentrikoak gainditzea.

Genero-zeharkakotasunaren helburua eguneroko bizitza eta erakunde publikoen egitura berrantolatzea da, bizitzaren eta lanaren arteko oreka mantentzeko. Oreka hori bereziki da garrantzitsua; izan ere, merkatu globalaren hedapenak arriskuan jartzen du etekin ekonomikorik sortzen ez duten ekimenei ematen zaien laguntza.

- Genero-aurrekontua

Lehenik eta behin, genero-zeharkakotasuna lortzeko baliabide bat da genero-aurrekontua EBrentzat. Planteamendu orokor horren baitan, erreferentzia-puntu askotatik uler daiteke genero-aurrekontua. Nola azaltzen dute aurrekontu publikoek gizon eta emakumeen eta haien postuen arteko aldea? Kontziente al gara etxe barruko arazoez arduratu behar dugula, adibidez, ordaindu gabeko zaintza-lanaz? Laguntzarik ematen al du finantzazio publikoak emakumeek ahalmena eskura dezaten eta belaunaldien ongizatea bermatzeko duten funtzioa bete dezaten?

Genero-aurrekontua inplementatzeko asmoa dutenek jakin beharko lukete, gutxienez,

zer dioen finantzazio publikoaren diziplinak etxeaz; alegia, ekonomiaren oinarrizko unitateaz. Ikusten dudanez, alor horretako adituek ez dute ikerketarik egin, are gutxiago aholku lagungaririk eman. Diru publikoa erabiltzen duten agintari publikoek berek erabaki behar dute nola jardun eta zer metodo probatu. Familiari bideratutako zergak eta gastuen lehentasunak kulturaren eta kultura horretan adostutakoaren arabekoak izan ohi dira. Gauza bera gertatzen da eguneroko prozedurak bideratzen dituzten printzipioekin.

Arau zaharkituek bitan bereizten dituzte gastu publikoak: gastu publiko “produktiboak” eta “inproduktiboak”. Hazkunde ekonomikoaren lehentasunek eta gero eta handiagoa den merkatuak oztopatu egiten dute behar sozialetan eta etekinik sortzen ez duen kontsumoaren beharretan “inbertitzeko” borondatea. Munduko Bankuak eta garapenerako dirua ematen duten beste hainbat erakundek esperimentatu dute “etekinik sortzen ez duten ekimenei” behar bezalako laguntza ez ematea zer den. Egituren Egokitzapen Egitasmoarekin, osasun-laguntzarako, hezkuntzarako, ingurunea babesteko eta beste arlo batzuetako baliabideak murriztu egin zituzten.

Politika horiek oso kaltegarriak izan ziren, batez ere emakumeentzat eta haurrentzat. Pobretasun-tasak gora egin zuen, eta emakumeen zama larriagotu egin zen. Lehen baino familia gehiagok ezin zituzten haurrak eskolara eramanez, eskola-kuota eskerga zela eta. Nahiz eta emakumeek jada merkatuarekin lotutako ekimenak bazituzten, lan-merkatuan sartu ziren diru gehigarri bat irabazteko. Argi gelditu zen garapenerako finantziazioak kontuan hartu behar zituela jarduera ez-ekonomiko izenez ezagutzen dena.

Munduko Bankuak, baina, tinko darrai diru publikoaren erabilera eraginkorraren alde. Bankuak emakumeei ahalmena ematea aholkatzen du lehenbailehen. Bankuaren ustez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak gizarte-kohesioari kalterik egingo ez dion hazkunde ekonomikoa bermatuko du. Munduko bankariek “ekonomia zuhur” izenez ezaguna dena sortzea eskatzen dute. Azpimarratzen dute emakumeengan inbertitzeak ez duela diru-hazkundera soilik segurtatzen, baizik eta baita, aldi berean, gizarte-etekin hobekia ere. Hainbat ikerketak agerian utzi dute emakumeek nahiago dutela dirua beren etxeko ongizaterako erabiltzea kontsumo pribaturako baino.

Eraginkortasunaren eta hazkunderaren munduan, genero-aurrekontua al da kontzientzia soziala pizteko bidea? Emakumeek beren gain hartu behar al dute lehen familia patriarkalaren zeregina zena? Zer egingo du genero-aurrekontuak gizonarekin, alegia oraindik edozein gizarte-egituratan agintea duen etxearen jabearekin? Atzean utzitako garaien soberakina soilik al da, edo konturatzen al da Finantzazio Publikoa gizonari (hots, gizateriaren erdiari) ahalmena eman behar zaiola –beste modu batean bada ere– etorkizun komun bat lortzeko?

Gogoan izan behar dugu egitura zaharkituek ez dutela erakusten zer kaltegarriak diren. Horren adibide argi bat da Alemaniaren diru-sarreraren zerga-sistema, zeinak oraindik diru-sarrera bakarreko familia pribilegiatzen duen. Duela gutxi kaleratutako txosten batek azaldu du sistema hori zertan datzan: etxe baten diru-sarreraren guztizkoa lortzeko, bikotekideen diru-sarrerak gehitzen dira, nahiz eta “B langileak” dirurik ez irabazi. B “espezializa dadin” (batek daki horrek zer esan nahi duen), A langileak (etxeko jabea den gizona) zerga-murrizpena izango du. Arau horrek emakumeak etxean gelditzera limurtzen ditu, eta gizonak familian urrutitik parte hartzera. Horrek bi

modutara egiten die traba guraso bakarreko familiei: gurasoek nahiz hurrek denbora-eta diru-eskasia dute, eta bakarrik bizi diren A motako langileen kopurua handitzen du.

Ekonomiaren arlo pribatuan, badirudi generoen arteko aldea bereizkeria kontua dela. Horrek azaltzen du teoria ekonomikoak oraindik aintzat ez hartzea etxearen eta gizonaren familiaren kongruentzia ekonomikoak dakartzan arazoak. Bien bitartean, gizarteek belaunaldiez arduratzeko duten gaitasunetik at jarraitzen dute emakumeek. Ekonomiaren ikuspuntutik, genero-berdintasunak zera ekar lezake: etxe-unitateen per capita baliabideak orekatzea, etxeko burua gizona izan edo emakumea izan. Gizarte-justizian ere, horrela pentsatzetik oso urrun gaude.

Aitzitik, honako uste hau indarrean da oraindik: emakumeek soldata nagusia duenaren laguntza osoa dute, eta etxeko eginkizuntzat hartzen ditugunak egiteko adina denbora badute. Uste horrek aurrekontu publikoei kontzientzia lasaitzen die diru publikoaren eskasia dagoenean. Aritu-txosten suitzar bat da Europako genero-aurrekontuen aitzindarietako bat, ez komunitate mailan soilik. Txostenaren titulua hau da: “Dirua aurreztu emakumeen gastuetan”. Agerian uzten du udaletxean erabakiak hartzen dituztenek zer joera duten zaintza-kontuetan aurrezteko. Horren ondorioa da, adibidez, haurrentzako eta osasun-laguntzetarako zerbitzu publikoen prezioa igotzea eta zerbitzu gutxiago eskaintzea. Bi kasuetan, batez ere emakumeek egin behar diote aurre galera horri, zerbitzu publikoen erabiltzaileen eta soldatapeko langileen antzera.

Duela gutxi hasi gara eztabaidatzen genero-aurrekontuak zer diren edo zer izan beharko luketen. Nahiz eta munduan zehar hainbat esperimentu ausart egin diren –haietako batzuk Europako hainbat eskualdetan–, jakin behar dugu bidea luzea dela oraindik. Gobernu suediarrek harrituta utzi ninduen: genero-aurrekontuak emakumeei eta gizonei berdintasuna eta independentzia pertsonala lortzen lagunduko diela espero dute, baita emakume eta gizon horiek gurasoak direnean ere. Ekin diezaiogun, bada.

Gizarte Zibilaren boto zabala: aurrekontu parte-hartzailea

Genero-aurrekontuak, genero-zeharkakotasuna bezala, goitik behera inplementatzeko daude eginak. Nahiz eta genero-aurrekontuen aplikazioa gehienetan gizarte zibileko ekintzaileek edo BKEek bultzatzen duten, helburuak eta prozedurak gobernuetako agintariak xedatzen dituzte. Agentzia administratzaileek erantzukizun hauek dituzte: bideragarritasuna, abian jartzea, segimendua, kontrola eta emaitzen berri ematea. Inork ez du zalantzan jartzen horrelako proiektuak nekagarriak eta garestiak direla; gainera, oztupoak direla eta, proiektuak mantsotu egiten dira sarri.

Alemanian eta beste leku batzuetan izandako esperientziak erakusten du genero-aurrekontua eta halako neurri berritzaileak ez direla oso estimatuak. Pribilegioak galtzeko beldurra duten gizabanakoek eta taldeek ez dute obeditu nahi izaten. Erakunde ofizialetan aholku-kontseiluak eta -batzarrak ezartzeaz gain, premiazkoa da gizarte zibilak etorkizunean gertatuko diren bilakaerak bultzatzea, prozesuak abia gal ez dezan. Orain arteko bilakaera ikusita, herrialde alemaniar-hiztunetan ez dago gizarte zibilaren parte-hartzerik gabe arrakasta izan duen proiekturik.

Kudeaketa Publiko Berriak egiten duena zera da: agintaritzak publikoak korporazio bilakatu eta diru publikoaren kudeaketarako arau komertzialak inposatu. Ondorioz, herritarrak bezero bilakatzen ditu. Baina herritarrak produktu eta zerbitzu publikoen

erabiltzailatzat hartzeaz haraindi, konstelazio berriak komunitatea definitzeko aukerak ematen ditu. Ereduren bati jarraitu behar al dio herriak? Ba al da ospe handia lortzeko diseinatutako asmo handiko egitasmorik? Nor da herritar xehea, zeren premia du?

Berez, aurrekontu parte-hartzaileek ez dute loturarik, funtsean, generoarekin. Egitura demokratikoetan ordezkapen eskasa duten herri-taldeei ahotsa emateko helburuarekin sortu zuten metodo hori. Talde horietako batzuk gehiengo izatera irits daitezke; hori da Latinoamerikako herrialde askotako edo Afrikako emakumeen eta haien familien kasua. Jasotako informazioaren arabera, Porto Alegren (Brasil), denek parte hartzen dute komunitatearen finantzazio-kontuetan. Emakumeek beren premiak aldarrikatzen dituzte, eta haien aldarrikapenei ez zaie generorik atxikitzen.

Normalean, aurrekontu parte-hartzailea inkesta zabal baten antzekoa da: jendeak beren etxeak zer premia bete behar dituen esaten du. Europako eta beste lekuetako komunitate gehienek badituzte gizarte-kezkak azaleratzeko aukera ematen duten egitura demokratiko fidagarriak. Aurrekontu parte-hartzailearen aldeko nazioarteko jarraitzaileek inkesta bat baino zerbait gehiago nahi dute. Honako hau eskatzen dute: herritarrak ez izatea soilik herriaren horniduren kontsumitzaileak, baizik eta eskubideak dituzten komunitate-kideak. Hori da gobernuari presioa egiteko modu bakarra giza eskubideak berma ditzan.

Nire herrialdean, genero-aurrekontua eta aurrekontu parte-hartzailea inplementatzera bultzatzen duen arrazoi nagusia da egun bizi dugun diru publikoaren murrizpena. Bi metodo horiek garatu egin behar dira, etorkizuneko kontsolidaziorako ahaleginek ez dezaten eragina izan emakume eta haurrengan soilik.

Hiri garapenak ezin dituela alde batera utzi familia kaltetuenak bizi direneko barrutiak eta are gehiago horien alde agon beharko litzatekela esaten dutenaren ospea dute. Beraientzat hirien urbanismoak funtzio oso garrantzitsua betetzen du degradazio sozialari, pobrezari, krimenari aurka egiteko orduan eta baita haurrik behartsuenari ere egiazko herritarra izateko aukerak emateko orduan. Hedadura txikiko auzategietan elkarlaguntza bultzatzeko azpiegitura egokia izatea eskatzen dute, beraien artean merkatu-prezioko hartuemanak egitearen beharra gutxituz.

Emakumea familiburu deneko etxeetan, emakumearena da etxebizitza batek barne hartzen dituen negozio zereginen administrazioaz arduratzea. Amerikar itxurazko supermerkatuetan, munduko produktu guztiak daudeneko horietan, ez daude behar basikoak hornitzeko haina prestatuta. Familia horientzako sostengua bermatzeaz gain, ur garbiaz hornitzeko aukera, zabor-bilketa, iluminazioa duten errepideak, merkatuak eta dendak, osasun zentroak eta formaziorik ez duten baina gaitasun zehatzak dituzten gazteentzako etxeko bizitzerekin erlazionaturiko lanen eskaintza.

Parte hartzea gehien bat bideratuta dagoeneko taldeen esku dago eta baita ere proiektuan parte hartzeko duten aukerari probetxua ateratzeko. Emakumearen ekintza indartsurik gabe, munduko toki askotan emakumeak gizonarengan uzten du partehartze egoeratan ere bere erabakia. Beraz, Porto Alegren egon zen ordezkartza eta interes orokorreko gaiez arduratzeko hoari zuten desioa oso garrantzizkoa izan zen. Arlo erabakigarrietan gizonezkoen generoak bere ikuspuntua aditzera eman zuten eta beraz negoziari zuzendutako hiri garapenarekin ez daudela batere ados adierazi zuten. Munduan zehar, gizarte zibileko taldeen artean bereziki, Porto Alegre garapen sozial sustentagarriaren adibide da mega-hiri tamainako esparruan ere.

Garapen prozesuan dagoen munduan espezialki, partehartze aurrekontuaren alde daudenek eskatzen dute herritarrak ez ikustea herriko erreserben agorle soil antzera baizik eta horien herrietako guztizko herritartzat hartzea. Soilik funtzio horren eraginpean izango dira gai gobernuei guztion giza-eskubideak gordetzeko presioa ezartzeko. Partehartze aurrekontua demokrazia berritzailearen alderdi ezberdinetan barneratzeko lehen pauso bezala ikusten dute, bertan gendea bakoitzaren ardurapean alro anitz bideratzen ditu merkatuari zuzendutako garapenetik at.

Europar, partehartze aurrekontua diru eskasia dagoenean gastuen lehenetsunaren kontsulta data bezala erabiltzen da. Momentuan dauden diru esleipenen ordezkariak jartzeari buruzko duten eritzia ematera gonbidatu dituzte horien aurrekontuko esleipenak bertan geldituko direlarik. Honek esan nahi du erabaki behar dutela beharpean buruz aurrekontuaren edozein alorrek diru sarrera-berezia behar duela uste dutenean. Beharpean horiek eragiketa bakoitzaren emaitza jarraian erakusten duen finantza-kalkulagailu baten bidez egiten dira.

Momentuz, ez dago ikerketa zehatzik Alemaniako partehartze aurrekontuan gizon zein emakumeen inplikazioari buruz, helburua tamaina ezberdinetako komunitateen artean ideia hori barreiatzea den arren. Orokorrean tamaina txiki edo ertainekoak izaten dira proiektuan parte hartzea zein izango den eta herri gobernuan izango lukeen eragina ikusteko adinako kemena duten komunitateak. Hiriburu handien artean, Hamburgo eta Colonia prozedura ezberdinen bitartez lehen urratsak ematen hasi dira. Hamburgoko lehen partehartze aurrekontua 2006 urtean egin zen, Colonian prozesu hori ihazko urrian hasi genuen eta oraindik ere emaitzen bilketan eta horien balorazioa egiten ari dira.

Colonia – bertan nire herriko elkarte sozialaren emakumeen aldeko herri elkartearen batzorde aholkulariko kide naiz- ohartu da gizonezkoak eta emakumezkoak bereitzen dituen bozketa egitea garrantzitsua litekeela. Antolatzaileak bereizketa hori posible egingo duten tresnen garapen prozesuan daude. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera eta estatus ezberdintasunak onartzen ez dituzten bitartean, erabakiak hartzeko arduraren dutenak, emakume eta gizonezkoen zereginen arteko ezberdintasuna eginda, azken emaitza bereziki onuragarria izango litzatekeela onartzeko ez dira gai izango.

Prozeduraren hasierako fasearen aurretikoak diren galdeketek (hemen eta beste edozein tokitan) gizonezkoak eta emakumezkoak era berean parte hartzeko motibazioa dutela adierazten dute. Horrez gain, galdeketa horiek azaltzen dute familia eta etxeen buruhausteak ez daudela gizonezkoari bideratuta. Bestalde, emakumeak prozesu hortan izango duen inplikazioa etxeko lanen, familia zaintzearen eta lan ordainduaren banaketaren arabera izango da batez ere. Gizonezkoek baino denbora gutxiago izanda, batzar publikoetan parte hartzea gustoko dute baina zaila izango da emakumezko batek bere burua online eztabaidatan parte hartzeko voluntario eskaintzea, emakumeak horretarako guztiz trebatuak badaude ere.

Hamburgon, non partehartzea soilik online moduan izan den eta non ez den saiakera espezifikorik egin genero bietara era berdinean heltzeko, emakumezkoen parte-hartzaile kopurua soilik %15ekoa izan zen. Emakumezkoen parte-hartze eskasia lortutako emaitzetan nabaritu zen. Gomendioetako batzuk kultura, udal-politika soziala eta familia arloetako gastuak murriztea proposatu zuten. Murrizketa kudeaketaren eraginkortasuna indartuz eta zerbitzu-hornitzaileen artean konpetentzia bultzatuz egin beharko litzateke. Talde kaltetuenek ez dute murrizketa hauen ondorioz jasango inolaz ere. Ordainsariak murriztu beharko lirateke eta zerbitzuen kalitateak hobea izan beharko luke. Eztabaidatzaile batek soilik erreparatu zion neurri honek eremu horretan lanean ari diren pertsonengan (gehiengoa emakumezkoak direla kontuan hartuta) eta beraien ordainsarrietan izango litzatekeen ondorioetan.

Duela gutxi Freiburg, alemaniako mendebaldean kokatuta dagoen neurri ertaineko hiri "berdea", etorkizunera guztiz begira dagoen proiektuan sartu da. Hiriak genero aurrekontua eta partehartze aurrekontua bateratu ditu

gizonezko zein emakumezkoei "Bizimodu Ona" eduki ahal izateko aukera eskaintzeko asmoz. Biztanlegoa gizonezko edo emakumezkoaren burua duen gorputz uniforme soil bat bezala ikusi gabe, Freiburg hiriak talde bakoitzari buruzko datu ugari biltzea lortu du.

Hiritarrak zerbitzu publikoen atal boluntarioaren inguruko gai kopuru zehatz bati bozkatzera gonbidatu zituzten: kultura eta aisialdi ekipamendua, garraio publikoa, jolastokiak eta igerilekuak, kirol-zelaiak, etab. Eredu bakoitza genero ezberdintasunari buruzko informazioarekin bete zuten. Parte-hartzaileak honako gai ezberdinei buruzko informazioaren berri zehazki jakin behar zuten: alor ezberdinetako langabezia-tasak, liburutegietako bisitari kopurua, igerileku publikoak erabiltzen dituzten lehen hezkuntzako haurren kopuruak, aintzinako etxebizitzetako bizilagunen kopurua, autobús bidaiariak, trenetakoak, etab. Zentzu horretan guztientzat guztiz errazagoa izan zen emandako gomendioen erantzukizuna hartzea. Emakumezkoen parte-hartzea %38,5koa izan zen, aurreikusia zen kopurua baina baxuagoa. Bozketaren fase aktiboa duela gutxi amaitu dela eta, azterketaren emaitzak guztiz osatu gabe daude. Egitasmo hauen guztien bitartez datozen urteotan aurrekontu gaietan herritarrek duten partaidetza adostu eta areagotzea lortu nahi dute.

Azken ondorioak (guztiz atarikoak)

Finantza publikoak kudeatzeko orduan genero erantzukizuna eta finantza publikoak kudeatzerako orduan gizarte zibilak duen partaidetza ez lirakeke modernizazioaren albo-ondoriotzat jo behar. Gizarte-kohesioa eta arreta gaitasuna mantendu eta bermatu ahal izateko, garapen ekonomikoa eta baliabideak bateratzeko premia dago. GAK eta PAK emakumezkoak eta gizonezkoak giza-ardurak neurri berean beren gain hartzen dituzteneko gizarte eredu eratu ahal izateko aukera eskaintzen du.